

## **Baionako Merkataritza Ganberak, Gipuzkoako Bazkondeak, Orkestrak eta Sodenak osatutako patzuergoak miloi bat euro baino gehiagoko proiektu europear bat lortu dute mugaz gaindiko lehiakortasuna sustatzeko**

- Euskadi-Akitania-Nafarroa mugaz gaindiko proiektua Competitiv'eko bezala ezagutzen da.
- Competitiv'eko proiektua 122 hautagaitzen artean hautatua izan da.

**Donostia, 2016ko ekainaren 22a.** - COMPETITIV'EKO proiektua mugaz gaindiko ekimen estrategiko bat da POCTEFaren (mugaz gaindiko lankidetzaren sustatzen duen europear programa) berrikuntza eta lehiakortasuna dinamizatzea helburu duena, Euskadi, Akitania eta Nafarroa mugaz gaindiko enpresa arteko lankidetzaren ekosistema baten garapeneraren bitartez. Hau lortu ahal izateko lurralde bakoitzeko ordezkari ekonomikoekin lan egingo da, clusterrak, garapen agentziak, teknologia zentruak, enpresak... enpresaritza eta instituzio lankidetzaren bidezko helburuarekin.

Proiektu hau Euskadi-Akitania-Nafarroa mugaz gaindiko patzuergoak eramango du aurrera. Patzuergoaren osatzen duten erakundeak honako hauek dira Baionako Merkataritza Ganbera, Gipuzkoako Bazkondea, Orkestra eta Sodena (Nafarroaren garapenerako elkarteak). Patzuergoaren agente nagusia Bainoako Merkataritza Ganbera izango da.

Competitiv'eko proiektua 2013an jaio zen BIHARTEANen (Baionako Merkataritza Ganberak eta Gipuzkoako Bazkondeak osatzen duten mugaz gaindiko Ganbera) eta Orkestraren arteko lankidetzaren estrategiko baten ondorioz. Lankidetzaren hau AECT Euskadi - Akitaniaren laguntzari esker posible izan da eta gaitasun analitikoak eta elkarekintza partekatzeagatik nabarmendu da. COMPETITIV'EKO proiektua 122 hautagaitzen artean aukeratua izan da eta proiektuaren inbertsioa 1.088.605,10 eurokoa da.

### **POCTEFA**

POCTEFA 2014-2020 INTERREG V-A España-Francia-Andorra Programaren akronimoa da. Lurralde lankidetzaren europear programa bat da eta hiru lurraldeen arteko garapen iraunkorra sustatzeko sortu da. Programak mugaz gaindiko lankidetzaren proiektuak sustatzen ditu, programaren parte hartzen duten Pirineotako alde bietako erakundeengatik diseinatuak eta kudeatuak direnak, lurraldearen garapen adimenduna, iraunkorra eta integratzailea babesten duen bitartean.